

Ostiral honetan mobilizazioak antolatu ditu Palestinarekin Elkartasunak

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 30/05/2024

Europako zenbait Gobernuek Palestinari egindako aitortza eta Nazioarteko Zigor Auzitegiaren ebazpenak irtenbide faltsuak bezala seinalatuko dituzte eta Palestina aske bat aldarrikatuko dute.

Hilabete honetan europar hautoekundeen harira Espainia, Norvegia eta Irlandako gobernuek Palestinar Estatuaren aitortza egin dute, Gaza eta Zisjordaniako zati txiki batzuk ordezkatzeko zuena. Era berean, Nazioarteko Zigor Auzitegiaren Fiskaltzak Benjamin Netanyahu eta Yoav Gallant Israelgo ministroak eta Yahya Sinwar, Mohammed Deif eta Ismail Haniyeh palestinar erresistentziako kideak atxilotzeko eskaera egin zuen, nahiz eta Nazioarteko Zigor Auzitegiak ez eskumenik Israelen. Gertakari hauen aurrean hurrengo **komunikatua** zabaldu du Palestinarekin Elkartasunak:

Palestinari buruz hitz egitean, egoera honi amaiera emango dioten irtenbide posibleak entzuten dira nonahi. Palestinarekin Elkartasunatik, palestinar erresistentziaren aldarria gure eginda, argi esaten dugu irtenbide bakarra Palestina osoaren deskolonizazioa eta entitate sionistaren desagertzea dela. Hau da, egoera koloniala gainditzeko bide bakarra deskolonizazio prozesu oso bat da, Israelgo egitura kolonial eta politiko-militarren desagitea eta sionismoaren deuseztatzea inplikatu behar duena. Zentzu horretan, pasa den maiatzaren 18an milaka lagun mobilizatu ginen Iruñeko kaleetan, bi estatuen irtenbide faltsua agerian utziz eta Palestinaren askatasuna Israel desagertzeko behararekin lotuz.

lido horretatik, azken egunotan, maila internazionalako hainbat agentek egindako adierazpen eta mugimenduen inguruan, beharrezkoa ikusten dugu zenbait ideia konfrontatu eta gezurtatzea. Izan ere, hauek behar bezala kokatzen ez badira, Palestinaren mesedetan egindako ekintzak izango balira bezala ager daitezke-eta.

Nazioarteko Zigor Auzitegiko fiskalizak duela zenbait egun egindako atxilotze eskaera. Bertan Benjamin Netanyahu eta Yoav Gallant Israelgo ministroak eta Yahya Sinwar, Mohammed Deif eta Ismail Haniyeh palestinar erresistentziako kideak atxilotzeko eskaera egin zuen. Horren aurrean, argi esan nahi dugu: ebazpen hau onartezina eta koloniala da. Erasotzailea eta erasotua parekatzen ditu. Zapalduaren autodefentsa kriminalizatzen du, gatazkaren ardura bi bandoen artean banatzen duelarik. Baina hemen ez dago berdinen arteko gatazkarik. Hemen, entitate genozida bat eta bere askatasunarengatik borrokatzen ari den herri bat daude. Beraz, ezin dira inolaz ere zapaltzaile eta zapaldua berdindu. Ez da konparagarria basakeria koloniala, jatorrizko herri baten autodefentsa zilegiarekin.

Bestalde, gatazka despolitizatu eta norbanakoengan zentratzen du. Sarraskiaren eragileak pertsona konkretuak izango balira bezala eta ez entitate sionistaren izaera bera. Egungo agintariak kenduta, bestelako Israel bat existitzea posible balitz bezala. Eta hiru militante kenduta, erresistentzia bukatuko balitz bezala, zapalkuntza egoera objektibo baten fruitua besterik ez denean. Baina ez dezagun geure burua engainatu. Israel kolonialismoa,

okupazioa, genozidioa eta apartheidia da. Ez dago Israel aldatzerik, bere jatorri eta izatetik bertatik, bortxa, garbiketa etnikoa eta sarraskia bere DNA-n txertatuta baititu. Era berean, Palestina zerbait bada bere erresistentzia da, eta gaur arte iraun badu, horrexegatik da. Hori dena gutxi balitz, eskaera onartuta ere, ez luke Netanyahuaren Gobernuaren kontrako eragin zuzenik izango, Nazioarteko Zigor Auzitegiak ez baitauka eskumenik Israelen.

Palestinar Estatuaren aitortza, Espainia, Irlanda eta Norvegiako gobernuen partetik.

Hasteko, azpimarratu nahiko genuke Espainiako gobernu progresistak bultzaturiko ekintza hau itxurakeria elektoralista besterik ez dela, ekainaren 9an izango diren europar hauteskundeei begira egindakoa. Dena den, erabakia hartu den dataz harago, hau ez da irtenbide bat inondik inora.

Zein estatu aitortu dute? Zisjordaniako lur zati isolatuak eta Gazako sarraski-esparrua?

Hori ez da Palestina: Palestina Jordan ibaitik Mediterraneo itsasora doan lur-eremua da. Gaur egun palestinarren esku gelditzen diren ogi-apurrak palestinar Estatutzat jotzea Nakba justifikatzea da, okupazioa eta kolonizazioa zilegiztatzea eta entitate sionistari existitzeko eskubidea aitortzea. Baina Israelek ez dauka existitzeko eskubiderik, lurralde bat okupatu, kolonizatu eta bertan garbiketa etniko baten bitartez 'estatu' bat sortzea ez baita eskubide bat.

Nor aitortzen dute? Agente gisa, Palestinar Aginte Nazionala da aitortzen eta hauspotzen dutena, Israelekiko menpekora den instituzio kolaborazionista, palestinar erresistentziaren aurkako errepresioan funtsezko papera betetzen duena eta bere herriaren begietan zilegitasuna galtzen ari dena. Palestinar erresistentziaren buruzagitza desplazatzeko eta Palestinar Aginte Nazionalak sinesgarritasuna berreskuratzeko saiakera da, palestinar herriaren ordezkari gisa indartzeko. Palestinar Estatua aitortzea, entitate sionistaren aurkako eta deskolonizazio prozesu oso baten aldeko borroka bati lotuta ez doan bitartean, Israel beraren existentzia aitortzea da. EBren nahiz NATOren agenda inperialista ezartzen eta Israel armaz hornitzen ari diren bitartean, eta bere kontrako boikotaren, desinbertsioen eta zigorren bidez Israelgo Estatua presionatu gabe, palestinar estatua aitortzea ekintza sinboliko bezain hutsala da, entitate sionistaren krimen lazgarrien aurkako haserrea baretzeko eta Palestinaren aldeko elkartasun mugimendua itzaltzeko mekanismo gisa erabilia dena. Azken batean, egoera dagoen bezala uztea da, okupazioak eta genozidioak bere horretan jarrai dezan ahalbidetzeko baldintzak ezartzen baititu.

Hortaz, bai Nazioarteko Zigor Auzitegiaren ebazpena eta baita Europako hainbat estaturen aitortpenak ere, helburu berdina duten mugimendu gisa ulertu behar ditugu: bi estatuen irtenbidearen ideia indartu, Israelen existentzia zilegiztatu eta Palestinar herriaren ordezkaritza otzan eta 'onargarri' bat hauspotzea, erresistentzia eta elkartasun internazionalista bigarren plano batean kokatuz. Mugimendu hauen hutsaltasunaren erakusgarri da hauen ondoren genozidioa gelditu edo ileundu" beharrean, azken egunetan entitate sionistak Rafah-ko bonbardaketa gogortu izana, zonalde seguruetan hamarnaka errefuxiatu bizirik kiskaliz.

Horren aurrean gure posturak argia izan behar du. Alde batetik, gure eginkizun internazionalista da, palestinar erresistentzia kriminalizatu nahi duten ebazpen kolonialen

aurrean, honi gure babes osoa adieraztea. Bestalde, ezinbestekoa da bi estatuen irtenbide faltsua konfrontatzen jarraitzea. Palestinar Estatua aitortzeak ez ditu errefuxiatuak etxeratuko, ez ditu preso politikoak askatuko, ez du apartheid deuseztatuko eta ez du okupazioa eta kolonizazioa amaituko. Ez ditzagun Palestinar herriari inposatu nahi zaizkion irtenbide faltsuak erosi. Palestina osoaren askatasunaren alde eta entitate sionistaren eta bere konplizeen aurka borrokatzen jarrai dezagun!

Era berean, ostiral honetan **kontzentrazioak** antolatu ditu plataformak Bilbo, Gasteiz eta Iruñean, irtenbide faltsuen aurrean Palestina aske baten alde eta entitate sionistaren aurka borrokatzen jarraitzeko deia eginez:

<https://eh.lahaine.org/ostiral-honetan-mobilizazioak-antolatu-ditu>